

ONDARROA. Aurtengorako be Dinamartxea eta Euskal Herriko kamiseta azokea lotu ditue

Zapato Azulak bost urte ditu

‘Bolo-Bolo’ aldizkariaren ekimenak ondarrutarrak kalera atarako ditu gaur, jai gosez

Lore Bengoetxea |

Ondarroako Zapato Azule jaiak bost urte beteko ditu, aurtien. *Bolo-Bolo* aldizkariaren eskutik sortu zan jai herriko hainbat talderen laguntzeagaz antolatzen da. Jenteak gogoz erantzuten deuto herriari jai eskaintzeko ahaleginari.

«Ondarrutarrek ondarrutarentzat antolatutako jaiak». Holakoxea da, *Bolo-Bolo* aldizkariaren ustez, Zapato Azule jaiak. «Gaurkoan be ugari izango dira, mahunezko erropak soinean dituela (horixe da gaurko jantzia) lagunduko dabenak. Poztekoa da holako jai egun baten oraindino jente hori guztia behar-rako prest egotea, eta nahiko genduke urte askotako izatea», adierazo dabe aldizkariak.

Laguntzaile horreen zerrendea egin dabe: Dinamartxakoa, kamiseta egileak, Salda Badago, Udala, BBK, Lagun Aro, AEK, Gu alkarregaz aurrera txitarro erretzaileak, Kresala Alkartea, Artelan Alkartea, Ondarroako Txistulari Alkartea, Txo Antzerki taldea, Arraun Alkartea, Musika Eskolako kanta zaharren ikastaroak, Kantaize orfeoia, Unanue Kamara Korala, Bizkaiko albokariak, OTAM, 34 eta txosnan beharra egiten daben guztiak.

Dinamartxea eta kamisetak

Zapato Azularen barruan, beste ekitaldi bi antolatzen ditue: Dina Bilbao triatleta zanaren omenezko bizikleta martxea Tolosatik Ondarroara, eta Euskal Herriko kamiseta azokea.

Aurtien, ganera, Arraun Al-



LORE BENGOTXEA

Urtetik urtera, Zapato Azule indarra hartzen doa. Argazkia iazkoa da.

kartea omenduko dabe, «datorren urtean 30 urte beteten ditualako eta igaz denporaldi ederra egin ebalako».

Bolo-Bolo orain dala bost urte San Pedro eguna berresku-

ratu eta itxura barria emoteko zeregina hartu eban. Bateko egitarauko ekimenak eta beste jentearen gogoak, Zapato Azule huts egin ezinezko eguna egin dabe.

EGITARAUA

BAGILAREN 29A, ZAPATO AZULE

07:00etan: Dinamartxan parte hartuko dabenek Tolosara urtengo dabe.

09:00etan: Tolosatik V. Dinamartxeak urtengo dau Ondarroara.

12:00etan: Bolanderak Antiguatik eta Zubi Zaharretik. V. Euskal Herriko Kamiseta azokea hasiko da Plazagainean. Txitarro erreak eskainiko ditue Zubi Zahar alboan eta taloak eta edatekoa, kofradia zaharren aurrean.

13:00etan: Txistulariak eta albokariak kalerik kale ibiliko dira.

13:30ean: Kresalako bandearen kalejireia Artelango erraldoiekin, San Pedro txurritik alde zaharrera.

14:30ean: Dinamartxea helduko da. Irrintzilariek emongo deusie ongi-etorria. Hemendik aurrera, hainbat gauza egongo dira: pregoia Alaiko balkoitik, omenduaren txupinazoa; bertsolariak; Kantaize orfeoia Kalekutzeko eskaileretan, eta albokariak.

15:00etan: Plazagaine zarratu egingo dabe, kamiseta egileak bazkaltzera joateko.

17:00etan: Plazagaine barriro zabalduko dabe. 34 dantzalekuan kontzertua emongo dabe Nimbusek eta Simcak.

17:30ean: Umeentzak jolasak hasiko dira Alai eta Andik Ona bitartean. Horren ostean, karamelak botako ditue Alaiko balkoitik.

19:00etan: Gaiteroak San Pedro txurritik alde zaharrera.

19:00etan: Batelen estropadea. Lekeitioko eta Ondarroako arraunlariak aurrez aurre ikusteko aukerea egongo da. Horren ostean, kukañearen txandea helduko da.

20:00etan: Kamiseta azokea itxiko da. Sari banaketea egingo dabe Kalekutzeko eskaileretan.

20:30ean: Dantza jaialdia, banakutik hasi eta Larrain dantzaraino.

21:00etan: Ondarroako kanta zaharren ekitaldia Peli Markuerkiagaren eta bere taldearen eskutik.

22:30ean: Txosnea zarratu egingo dabe, baina herrian jaiak aurrera jarraituko dau.

LAGURAEAN

LEKEITIO

Baserritarrek azoka bereziak antolatu ditue

Lekeitioko merkauan azoka bereziak egingo ditue, gaurtik aurrera. Azoka horreen bitartez, baserritarrek bertako produktuak jenteari erakutsi nahi deusiez, eta merkaurajoa konbidau. Azokearen barruan, bertsolarien eta trikitilarien saioak prestatzen ditue. Garagarrilaren 13an, abuztuaren 10ean eta irailaren 31n jarri ditue batzeko hurrengo egunak.

ETXEBARRI

Zaldi mando probetarako asteburuko neurketak lotu ditue

Etxebarriko X. Zaldi mando-proben barruan, gaur, Lau-dioko J.A. Unzaga, Nabarnizko J.M. Zubizarreta, Bilboko I. Cimas eta Bermeoko J. Bilbao izango dira aurrez aurre. Astelehenean, Bermeoko Cannon, Laukizko Landazabal, Arbazegiko Urionabarrenetxea eta Billelako Lopategiren txandea izango da.

LEA IBARRA

Mendinet autobusa irailean ekarriko dabe

Lea Ibarreko Mankomunazgoak Txutxumutxuka aldizkariaren bitartez jakitera emon dauenez, mendi-nekazaritza alkartea bagilean emoteko izan zan internet ikastaroa irailera atzeratu behar izan dabe, «mikrobuzagaz euki dituen arazo batzuk dirala-eta». Hainbat jentek ikastaroan parte-hartzeko izena emon eban. Horreei danei ikastaroa noiz izango dan adierazoko deusie Mankomunitateak, aurretiaz.

LEA IBARRA. Beharrotarako enpresek beharginak hartu leikezala esan dabe

Laster hasiko dira Oleta eta Gizaburuaga arteko errepidea konpontzen

Izaskun Basterretxea |

Lea Ibarreko Mankomunazgoak Txutxumutxukaren bagileko alean aurreratu dauenez, laster Oleta-Gizaburuaga errepideko konponketak hasiko ditue.

«Obra hori egingo dauen enpresek adierazo deusku balitekel beharrotarako behargin pare bat hartu behar izatea. Holan, inguru honetako jenteagaz zerrendea egitea pentsa dogu», esan dabe. Interesa daukienek 94 684 30 77 telefonora

deitu behar dabe, eta izen-abizenak eta helbidea emon. «Argi laga nahi da gai honetan ez Udalez ez Mankomunazgoak ez daukiela zerikusirik, eta beharizanen arabera, kontratazioa errepidearen konponketegaz arduratuko dan enpresek egingo leukela», gogoratu dabe.

Oibarko jabearen idatzia

Beste alde batetik, dinoenez, Oibarko jabeak idatzi egin deusie, maiatzean atara eben Txutxumutxuka aldizkariaren ale

bereziari erantzunda. «Ale hartan, errepidearen konponketaren ganean sortutako eztabaide argitu nahi izan genduan», adierazo dabe.

«Oibarkoak, bere kartan, esaten dau errepidearen konponketaren aurka ez dagoela, eta arazoa Aldundiak desjabetu nahi dituan lur batzuekin eta Gizaburuagako Udalak onartutako sorospen arauakaitik sortu dala», azaldu dabe. Mankomunazgoak eztabaidea amaitutzat jo dau.

AGENDEA

BERRIATUA

Sanpedroak: 11:00etan, kalejireia izango da trikitilariekin; eguerdian, herri kirolariak; 16:00etan, umeen parkea; 17:00etan, mus eta briska txapelketak eta 22:45ean, Rakel Pujana. Bihar, 12:30ean, zesta partiduak jokatu ditue.

MUNITIBAR

Jaiak: Sanpedroen barruan, 13:00etan, umeen dantza erakusketea izango da; 14:00etan, jubilauren bazkaria; 17:00etan, Gasteiz taldeagaz erromeria; 20:00etan, *De traka trikimailu express* antzerkia; 22:00etan, I. Mozorro gaua (uste bako opari eta guzti), sardina jana eta tortila txapelketea; eta guerdian, erromeria Etxabe taldeagaz. Bihar, ahari topeka eta oilar borroka izango dira eguerdian;

pelota partiduak 17:00etan, eta bertso emonaldia, 20:00etan.

LEKEITIO

Sanpedroetan: Dei eittekuak, dienea, azokea, prozesinoa, Kilin-Kalakoa, Kaxarranke, andren aureskua, Euskadiko triatlai txapelketea, dantza saioa, xistera partiduak, musikea eta zezen suzkoak izango dira. Bihar, buruhandi, txistulari, musikari eta erraldoien kalejireia, erromeria, pailasoen ekitaldia eta musikea lotu ditue; eta, etzi, txikitea eta pintxo jana eguerdian, umeen jokoak eta txokolatadea 17:00etan eta musikea 22:00etan.

ONDARROA

Argazki erakusketea: Kafe Antzokian, 2001eko Zapato Azuleko argazkiak ikusi eta eskatu leitez.